



Esp. kodea: 2021YHIT0006
Titularra: EUDEL

Gaia: Euskadi BonoDenda 2021
Hasiera data: 2021/10/06

EUSKADI SALTOKI BONUEN PROGRAMARA ATXIKITAKO ARRASATEKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO MERKATARITZA GANBERAREN ARTEAN SINATUTAKO KOLABORAZIO HITZARMENA

EUSKADI BONO DENDA PROGRAMA

Hitzarmenaren xedea

Kolaborazio hitzarmen honetan ezarri dira Arrasateko Udalaren eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren konpromisoak eta jardun eremua, Udala **Euskadi Bono Denda** Programara atxikitzeko esparruan.

Programara atxikiz, Arrasateko Udalak bere gain hartu ditu programa sustatu duten erakundeek sinatutako erakunde arteko Jardun Protokolo Orokorraren konpromisoak, eta programara baliabide ekonomikoak bideratzeko konpromisoa hartzen du, txikizkako merkataritzako dendetan ondasunak erostea sustatzeko, denda horiek pertsona autonomo, mikroenpresa eta enpresa txikiak baldin badira, deskontu bonuak emanez; bonu horiekin, onuradunak aipatutako ondasunak erosteko prezioa merkatzea lortu ahalko du.

Bonu horiek areagotu egingo dituzte Eusko Jaurlaritzak Arrasateko udalerrian kokatutako dendek esku jarritako bonuak; banaketari dagokionez, modu linealean banatuko dira programara atxikitako udalerriko dendek artean.

Horrez gain, Euskadi Bono Denda programaren funtzionamendua eta operatiboa ezagutu eta onartzen du Udalak, baita Merkataritza Ganbera entitate kolaboratzailea dela ere, betiere oinarritzat hartuz Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2021ko irailaren 21ko Aginduan ezarritakoa, zeinaren bidez arautu eta deitu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza sektoreko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko «Euskadi Bono-Denda programa.

Bonuen banaketa

1.- Udalak guztira emango dituen deskontu bonuak (3.000 bonu) udal mugartean kanpainarekin bat egin duten saltokien artean banatuko dira, modu linealean, emandako bonu kopuruaren eta programara atxikitako saltoki kopuruaren arabera banatuta.

2.- Deskontu bonuak Merkataritza Ganberak banatuko ditu, aurreko irizpideak jarraituz.

Kodea	CL21/13341	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/urr./22	CUDO	000.0055.AAAAM7B6.K.aqja
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM7B6K.aqja		

Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu





Esp. kodea: 2021YHIT0006
Titularra: EUDEL

Gaia: Euskadi BonoDenda 2021
Hasiera data: 2021/10/06

Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren jarduketak eta konpromisoak

- a) Udalak bideratutako bonuak plataforma teknologiko baten bitartez kudeatzea, bonu horiek ematea, trukatzea eta kontrolatzea ahalbidetuz.
- b) Programa webgunearen eta bestelako baliabide propioen bitartez hedatzea.
- c) Harremanetarako bide izatea saltoki parte hartzaileekin, programara atxikitzea artikulatzeko eta programa dela bide hartutako konpromisoak zuzen garatzea kontrolatzeko.
- d) Udalari informazioa eta laguntza ematea kanpainara atxikitzea formalizatzeko.
- e) Udalak emandako funtsen gordailuzain eta banatzaile izatea, bonuak banatzeko lanak koordinatuz hobaria jaso duten salerosketa eragiketetan.
- f) Programara atxikitako pertsona enpresaburu autonomoei, mikroenpresei eta enpresa txikiei deskontu bonuei dagozkien kopuruak ordaintzea.
- g) Azken likidazioaren txosten-memoria egitea, eta bertan jasotzea programaren kontabilitate balantzea, udalerrian trukaturako deskontu bonu kopuruari buruzko informazioa eta programa garatzean sortutako bestelako informazio interesgarri oro. Txosten hau urtarrilak 30a baino lehen aurkeztu beharko da.
- h) Arrasateko Udaleko fiskalizazio jarduketak aplikatzea edo egiaztapen kontrolak egitea.
- i) Finantzaketa publikoa dela eta Arrasateko Udalak finantzatzen duela adierazteko publizitatea behar bezala egitea.

Arrasateko Udalaren jarduketak eta konpromisoak

Kolaborazio Hitzarmen honen helburua lortzeko, Arrasateko Udalak honako hau hartzen du bere gain:

Kodea	CL21/13341	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/urr./22	CUDO	000.0055.AAAAM7B6.K.aqja
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM7B6K.aqja		
Dokumentu honen balioetasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			



Esp. kodea: 2021YHIT0006
Titularra: EUDEL

Gaia: Euskadi BonoDenda 2021
Hasiera data: 2021/10/06

- a) Salerosketa eragiketen finantzaketa, 10 euroko laguntza emanaz deskontu bonu bakoitzeko; itzultzeko beharrik gabeko diru-laguntza gisa hartuko dira.
- b) Programa kudeatu, betearazi eta koordinatzeko gastuen finantzaketa (% 5,49 gehi BEZa emandako deskontu bonuen balio guztiari dagokionez).

Programaren gastuei aurre egiteko honako kopuru hauek aurreikusi dira:

- 30.000 euro Saltoki Bonuen zenbatekoa ordaintzeko. Partida hori Gipuzkoako Merkataritza Ganberari ordainduko zaio, udal mugartean programara atxiki diren saltokien artean banatu eta aplikatu beharreko deskontuak ordaintzeko funtsen gordailu kontzeptuarekin.
- 1.993 euro (% 5,49 + emandako bonuen kopuruen BEZa) bonuak kudeatu, betearazi eta koordinatzeko gastuak ordaintzeko. Kopurua Gipuzkoako Merkataritza Ganberari ordainduko zaio, Udalaren ekarpenari dagozkion bonuak eman ondoren.

Funtsak gorde eta kudeatzeko baldintzak

1.- Hitzarmen hau sinatu eta hurrengo 15 eguneko epean Arrasateko Udalak kudeatu beharreko laguntzei dagozkien funtsen kopurua sartuko du Gipuzkoako Merkataritza Ganberak adierazitako kontu korrontean (31.993 euro). Une horretatik aurrera, Ganbera funtsen gordailuzain gisa eratuko da, gordailuak gordailu zibilean gordetzeko berezko betebeharrak bere gain hartuz, Kode Zibileko 1758. artikuluan eta hurrengoetan araututakoak

2.- Astero, Merkataritza Ganberak zuzenean emango dizkie funtsak kanpainan parte hartzen duten saltokiei, banku transferentziaren bitartez; horretarako, saltokiek diruz lagundutako salerosketa eragiketak egin izana eta betekizunak bete izana egiaztatzeko ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte aurretik, eta baldintzak eta hobarien betekizunak bete direla egiaztatuko da, programa kudeatu eta betearazteko kontratazioan adostutako prozeduraren arabera.

Helburua bete dela egiaztatzeko ziurtagiriak eta saltokiei egindako transferentzien egiaztagiria likidazioaren azken txostenean jasoko dira, Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren jarduketa eta konpromisoei buruzko klausularen g atalean aipatutakoa.

Kodea	CL21/13341	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/urr./22	CUDO	000.0055.AAAAM7B6.K.aqja
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM7B6K.aqja		
Dokumentu honen balioetasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			







Esp. kodea: 2021YHIT0006
Titularra: EUDEL

Gaia: Euskadi BonoDenda 2021
Hasiera data: 2021/10/06

3.- Programa kudeatu eta betearaztean sortutako dokumentazioa lau urtez gorde eta zainduko da, eta Arrasateko Udalaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren eskura egongo da, jarduketak betearazi eta garatzea egiaztatzeko funtzioak eta laguntzen helburua fiskalizatzeko funtzioak betetze aldera.

4.- Gipuzkoako Merkataritza Ganbera dagozkion egiaztapen eta kontrol finantzarioko jarduketan mende egongo da, funts horien kudeaketari dagokionez.

Azpikontratazioa

Aurrekontuaren % 100era arteko azpikontratazioa baimenduko da, hitzarmen honetan ezarritako betekizunak betez.

Hitzarmenaren indarraldia

Kolaborazio hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da 2022ko maiatzaren 31 arte, agiri justifikagarriak aurkezteko datak edo diru-laguntzei buruzko legedia aplikatuz dagozkion kontuak eman eta itzulketa eragiketen azken likidaziorako datak edozein direla ere.

Arrasaten, 2021ko urriaren 15ean

Kodea	CL21/13341	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/urr./22	CUDO	000.0055.AAAAM7B6.K.aqja
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM7B6K.aqja		
Dokumentu honen balioetasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			



